



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko uztailaren 30a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxea

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Amaia Gozategi Urbietta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Basurko Sarasua (EAJ) zinegotziak adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko ekainaren 25eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Alkatearen 2020ko uztailaren 24ko 346 zenbakidun dekretuaren berri ematea.
- 3.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, 2019ko udal-aurrekontuaren kontu orokorra.
- 4.- 2020ko udal-aurrekontuaren lehen seihilekoaren exekuzioaren berri ematea.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 6/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udal Aurrekontu Propioaren 7/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente, kreditu gehigarriaren modalitatean.
- 7.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko ordenantza fiskaletako 2.7 atalaren aldaketari, zirkuei dagokien azpiatalean.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO EKAINAREN 25EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2020ko ekainaren 25eko ohiko bilkurako akta.

2.- ALKATEAREN 2020KO UZTAILAREN 24KO 346 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Dekretuak honela dio, hitzez hitz:

Orioko Udala arreta handiz ari da aztertzen COVID-19 gaixotasunaren agerraldiak inguruko herrietan, eta horrek gure udalerrian bertan duen eragina. Izan ere, kasu positibo batzuk antzeman dira azken egunetan; batez ere gazteak dira, eta gaueko taberna giroari lotuta kutsatu dira. Hori dela eta, inguruko udalerrietan gaueko



tabernen ordutegiak murriztu dituzte, eta kezkatuta dago udala horrek jende pilaketak erakarri ditzakeelako herriko taberna eta inguruetan.

Hori dela eta, ostalaritza sektorearekin adostuta, udalak prebentzio neurri gehigarriak hartuko ditu. Behin-behineko izaera izango dute neurriak; egoera epidemiologikoaren bilakaeraren arabera izango dira, eta inguruko udalerriekin koordinatuak.

Era berean, udalak dei egiten die ostalariei eta tabernetako erabiltzaileei zorroztasunez bete ditzaten higie eta segurtasun neurriak, baita Eusko Jaurlaritzak emandako aginduak ere.

Aurreko guztia kontuan hartuta, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Eraberritutako Testuaren 24. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 41. artikulua ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz eta tramitea osorik iritzita, ondorengo hau

ERABAKI DUT

LEHENA.- Bere horretan mantentzea 2. kategoriako tabernen eta establezimenduen egun arruntetako ordutegia.

BIGARRENA.- 2. kategoriako tabernetan ostiraletan, larunbatetan eta jaiegun bezperatan 02:00etarako establezimendua guztiz itxita egotea. Lokalaren titularrak horretarako hartu beharreko neurriak hartuko ditu, bere erantzukizunpean.

HIRUGARRENA.- 3. kategoriako establezimenduetan astelehenetik igandera bitartean 02:00etarako establezimendua guztiz itxita egotea. Lokalaren titularrak horretarako hartu beharreko neurriak hartuko ditu, bere erantzukizunpean.

LAUGARRENA.- Osasun Saileko azken aginduak esaten duenarekin bat etorruta, gogoratzen da establezimenduz kanpo kontsumitzea debekatuta dagoela.

BOSGARRENA.- Eusko Jaurlaritzan arlo honetan eskumenak dituen zuzendaritzari jakinaraziko zaio ebazpen hau. Gainera, argitaratu egingo da herritarrak eta ostalaritzako establezimenduen titularrak jakinaren gainean egon daitezen.

SEIGARRENA.- Udalbatzari ebazpen honen berri emango zaio hurrengo ohiko udalbatzarrean.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, 2019KO UDAL-AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2019ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera-orriak, eta, bestetik, 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeke eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharra idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2020ko ekainaren 4ko GAOn (104. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharra aurkezteko epea 2020ko ekainaren 5ean hasi zen eta ekainaren 25ean bukatu.

Epe horren barruan ez da inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalaren 2019ko aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak osatzen duena.

4.- 2020KO UDAL-AURREKONTUAREN LEHEN SEIHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Diru-sarreretan, udal-aurrekontuaren %53,39 exekutatu da (2019ko lehen seihilekoan, %54,36); gastuetan, berriz, %33,34 exekutatu da (2019ko lehen seihilekoan, %30,51).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 6/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2020 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **15.500 euroko** zenbatekoa du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko uztailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udal Aurrekontu Propioaren 6/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta **15.500 euroko** zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL AURREKONTU PROPIOAREN 7/2020 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIAREN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2020 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **319.644 euroko** zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko uztailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udal Aurrekontu Propioaren 7/2020 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta **319.644 euroko** zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

7.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO ORDENANTZA FISKALETAKO 2.7 ATALAREN ALDAKETARI, ZIRKUEI DAGOKIEN AZPIATALEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2020ko uztailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko ordenantza fiskaletako 2.7. atalaren zirkuei buruzko 11. azpiatalaren aldaketari. Ordenantza fiskalaren 2.7 atalak tasak ezartzen ditu, postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun-guneak, feriak edo jolaslekuak instalatzeagatik udal-erabilera publikoko lurretan (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Erabaki honen bidez, hau eranstean zaio indarrean dagoen erredakzioari:



Interes kultural bereziko entitateek ez dute aipatu tarifa ordaindu beharko, gaia dela-eta eskumena duen udal-batzorde informatzaileak horrela diktaminatzen badu.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Agindua 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketena: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko arauzko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, erabakia behin betikoa bilakatuko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, eta oriotarrei eskatzen die zorrotz betetzeko COVID-19a dela eta ezarritako neurri higieniko-sanitarioak eta urruntze sozialekoak.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,